

Liburuaren eguna ospatu zen ostiralean

E.P.Akoek eta Landaberri BHIkoek hainbat ekitaldi burutu zituzten

Liburuaren egunarekin bat etorri E.P.Akoek euren ikasleentzako antolatzen duten Literatur Lehiaketaren sari banaketa egin zuten ostiral goizean kultur etxean.

Aurtengoa, X. edizioa izan da. Honetan, liburuaren eguna oroituz, irakasle eta ikasleak taldeka prestaturiko idazkiak irakurri. Emozioz beteriko literatur testuak izan ziren "oso politak eta hunkigarriak" adierazi ziguten antolatzaileek.

Honetaz gain, urtero omenaldia egiten diote ikasle edo irakasle bati. Aurten Eufrasia, ikasle zaharrena izan da omendua. E.P.Ako ordezkariak lore sorta bat oparitu zioten, "sorpresa bat izan da, ez nuen espero" adierazi zigun. Bederatzi urte darama emakume honek E.P.An eta errekoizimendua izan du aurten.

Ekitaldia amaitu, eta entzundakoak hobeto komentatzeko, hamaiketako eskaini zitzaizkien bertaratutakoek.

Landaberri BHI

Bestalde, Landaberri BHIk liburuaren egunaren ospakizun berezia egin zuen.

Hitzak, musika eta magia bateratu zituen ekitaldia antolatu zuten Landaberri BHI egoitzako aurreko plazan.

Porrotxan magia eta ikasleek instrumentu ezberdinekin jotako doinuek Pinotxoren abenturen atal bakoitzari sarre-ara egin zuten.

Italiera, gaztelania, txinera, frantsesa, ingelesa, arabiera, alemanera, portugesa eta euskara izan ziren bertan bildu ziren guztiak, Udal ordezkariak barne, entzun zituzten hizkuntzak. Izan ere, atal bakoitza hizkuntza batean irakurri baitzuten egun dagoen nahasketa kulturala irudikatuz.

Amaieran, Martin Anso ikasleak liburuari buruzko Book 2.0 umorezko bakarrizketa egin zuen eta Porrotxek azken truku bat, kutxa huts batetik liburu eta disko bat ateratu zituen. •



Jende ugari hurbildu zen E.P.Ako ekitaldira. Eufrasia omendua, ezkerretik hasita, bigarrena da. Sorpresa iristear zuten.



Pinotxo bederatzi hizkuntzetan entzuteko aukera egon zen ostirala eguerdian, Landaberri BHIko aurrealdean.



Mario Garrido judoka Euskadiko txapelduna da patinaje artistikoan/4

UDALA/ 6

Lasarte-Oriako III. Maketa Lehiaketan partehartzeko epea ireki du Udalak



Presoen aldeko Ixtxialdia burutu zen San Pedro parrokian larunbata gauean/5



ANAIAK

JANTZI-DENDA
40 URTE ZUEKIN!

Kale Nagusia 25 • LASARTE-ORIA • Tel.: 943 362386

Auto kritika Kudeatuz egitasmoan

■ Plazaola parkea definitzeko bileratan sektore asko falta zirela aitortu dute ■ Egitasmo berriak prestatzeko aukera eman arren, herritarrek, oro har, parte hartzeko gogo gutxi erakusten dute

Maila batean huts egin dute Kudeatuz saioek. Plazaola nekazal parkeari buruzko herritarren iritziak jaso nahi zituen Udalak, baina eremu horretan lursailak dauzkatenetaz aparte, gutxi izan dira ekarpenak egin dituztenak. Azken bilerako bozketan eremua, aldaketa asko egin gabe, dagoen bezala, uzteko proposamena aukeratu zuten bildutakoek, lurrak galduko dituztenek ez dutelako aldaketarik nahi eta euren haserrea erakusteko bide hori hartu zutelako.

JON ALTUNA

Kudeatuz, parte hartzea bultzatzeko egitasmoaren azken bileran berriro ere argi gelditu zen Plazaolan egin nahi den nekazal parkea definitzeko proposamenak egitera joandakoak baino, parkea jarriko den lurretan sailen bat duten herritarrek parte hartu dutela. Hirugarren bileran, parkearen inguruko proposamenak bozkatu ziren eta boto gehien parkea dagoen bezala uzteak eskuratu zituen, bertan baratzak dituztenek hori bozkatu zutelako. Dena den bada-kite Udalak euren lurrak erosiko dituela, saldu nahi ez baldin badituzte ere, espropiazio edo desjabetzen bidez.

Berrogeita hamar lagunetik gora elkartu ziren Osasun Etxe gaineko batzar gelan, ostegun arratsaldean, egin zen hirugarren bileran, baina hiruzpalau ziren parke berriari buruzko ideiak ematera joandakoak. Berriro ere, gehienak eremuan jabetzak dituztenak ziren eta hauen iritziak luzatu ziren behin eta berriro, Aztiker, eztabaida dinamizatzen aritu den enpresako teknikariak batzorra ez zela horretarako hainbat aldez errepikatu arren.

Aurreko bi bileratan parkeari buruz jendeak luzatutako proposamen ezberdinen artean egindako bozketan ere aipatutakoa islatu zen. 20 proposamen ezberdin ziren, azkenak ostegunean bertan egindakoak, bileran parte hartu zuen bako-

itzak bost pegatina zituen egokienak iruditzen zitzaizkionari emateko eta boto gehien jaso zituena Parkea dagoen bezala uzteko aukera izan zen (48) euren saila saltzera derrigortuko dituzten herritarrek horrela adierazi zutelako parkearen aurkako euren jarrera.

Lurren jabeak haserre

Jakina da, eremuan baratzak dituztenak Udal agintarien asmoen berri zuzena izan dutela bilera hauetan, hau da, Udala eremu osoa erosiko duela: parkea hartuko duen lur zatia-aren %92a jada hitzartuta dauka %8a soilik du eskuratzeko eta hauekin adostasunik ez bada, desjabetzen bidea hartuko du Udalak. Herritar hauek atsekabetuta daude eta bileratan euren keza azaldu dute.

Beste proposamenei dago-kionez, aisialdiko gunea (mahai, komun,...) jartzeko aukerak 25 boto jaso zituen eta 18 aldaketa askorik ez egiteko proposamenak, hau da, parkeak naturarekin bat egin dezala asko urbanizatu gabe, farolarik, biderik eta zementurik jarri gabe, alegia.

Beraz, kontraesanetan dau-den bi jarrera daude, batzuk aisialdiko gunean jartzearen aldekoak eta besteak zerbait txukundu baina aldaketa asko ez egitearen aldekoak. Egia esan, eremuan interesik izan gabe euren iritzia eman zutenen artean nagusi ziren bigarren aukeraren aldekoak, hau da, bidegorria jartzekotan par-



Plazaola parkeari buruzko proposamenak bozkatu ziren, aurreko ostegunean, Kudeatuz-en hirugarren bileran.

kera iristeko jartzearen alde, bertako landareta berreskuratzearen alde, eta aldaketa asko egin gabe uztearen alde.

Autokritika

Bilerak aurrera egin ahala, ekarpen interesgarriren bat edo beste egin zen bukaera aldera ere, eta, batez ere, Kudeatuz egitasmoari berari egindako kritikak izan ziren. Bileratan Lasarte-Oria ez zegoela ordezkaturia alegia, interesak dituztenak eta gutxi gehiago izan direla parte hartu dutenak; herriak hitz egin behar duela, adin ezberdinetakoek, bere bila joan behar bada ere.

Batek baino gehiagok salatu zuten parte hartzearen aldeko kultura falta dela, Udala eta erakunde publikoak kritikatu egiten direla, baina ondoren, herritarrek interes partikularrik ez badute, ez direla ia ezertan inplikatzeko, konpromezurik hartzen edo bustitzen. Kritikak ondoren egiten direla, baina aukera izan arren, aurretik oro har herritarrek paso egiten duela.

Bileran parte hartu zutenek zein Aztikerreko teknikariak aitortu zuten bileretan jasotako iritziak ez zutela lasarteoriaren iritzi ordezkatzen edo islatzen, hau da huts asko zueldea. Sektore esanguratsu askoren iritzia falta zela eta beraz bileraren ondorioak ez direla erakusgarri edo adierazgarriak izan.

Proposamen ugari

Dena den, proposamen batzuk izan dira: bidegorria eta oinezkoen bidea; aisialdi gunea; San Frantziskotik sarrera; Basaunditik sarrera nagusia; erreka txukuntzea; Lasarteko historiaren erakusketa; tren txiki bat jartzea; Plazaolako zubi azpiko iturburua berreskuratzea; atsedengunea; barbakoa, mahai eta aulkiak; errekarri bizitza ematea; errekatxoan erabilera publikoa izango duen putzua egitea; autoen sarrera galaraztea; parkea soilik pixka bat konpondu eta dagoen bezala uztea; ez urbanizatzea (farolarik, biderik, zementurik,... gabe) eta naturarekin armonia zain-

tzea; eguzkia hartzeko belardia eta landare, zuhaitz,... gehiago; bertako landareen parke botanikoa eta errekatxoan egurrezko zubia.

Azkenak hirugarren bileran bertan proposatu ziren, esaterako bertako landareta berreskuratzea eta Parkeko lurretan den baserria berritzea.

Orain Udalak dauka hitza. Urte amaierarako proiektua egiteko asmoa duela eta Kudeatuz-eko bileratan egindako ekarpen, proposamen eta iritziak kontutan izango dituztela aurreratu dute, baina ez dago ezertara behartuta.

Kudeatuz egitasmoa, Plazaola parkea nolakoa izango den definitzeko erabili nahi zuen Udalak, hau da, etorkizuneko parkearen ezaugarriak buruzko proposamenak egiteko aukera eman zien herritarrei, baina hiru bileren ondoren argi eta garbi ikusi da, ideiak baino bertan baratzak eta lurrak dituzten herritarrek kexak jakinarazi direla eta beraz, hasierako asmoa nolabait hutsan geratu edo indargabetu dela. •

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta
Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@itakun.com • Publizitatea: publizitatea@itakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@itakun.com; itakun@itakun.com.

Txintxarri ez du bere gain hartzen iritzi-artikuletan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Ezetz asmatu bost gezur borobilak jokia abian da

Buruntzaldeko udalek lan munduan euskararen presentzia aregotzeko ekintza berria jarri dute martxan

Ezetz asmatu bost gezur borobilak joko interaktiboa da Buruntzaldea osatzen duten Andoain, Astigarraga, Hernani, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbilgo udalek plazaratu duten ekintza berria.

Lan munduan euskararen presentzia aregotzeko lanean jardun dira sei udal hauek eta ekintza hau egitasmo honen barruan kokatzen da.

Joko honen bidez, hizkuntza-kudeaketaren onurak modu alai batean herritarrei hurbilteza dute helburu Udalek.

5 gezur borobilak asmatzeko, euskara erabili eta aberasteko denbora pasa joko baten irabazle egin zaitzake.

Buruntzaldeko herri bakoitzean irabazle bat egongo da eta maiatzaren 28an herri bakoitzean sariduna aukeratzeko zozketa egingo da.

Zertan datza?

5 gezurak asmatu eta zozketan parte hartu fitxak indutegietan, ikastetxeetan, euskaltegietan, sindikatuetan eta euskara-elkarteetan banatuko dira.

Hilabeteko epea dago, apirilaren 26tik maiatzaren 27ra arte, fitxa bete eta Lasarte-Oriako Euskara Zerbitzura helarazteko.

Erantzunez gain, izen-abizena, eta harremanetarako telefonoa jarri behar duzue. Zozketan saritua izanez gero, Euskara Zerbitzuak telefonoz deitu eta saria noiz eta non emango zaion jakinaraziko die sarituei.

Era berean, euskara.buruntzaldea.org web atarian atal berezi bat sortu dute bertan jendearen erantzunak jasotzeko. •

IKASTAROA

Arrisku handiko manipulazaila ikastaroa

Elkolab. S. Coop. enpresak, Lasarte-Oriako Udalaren Sanitateko Departamentuarekin elkarlanean, ikastaro berri bat emango du, ostalaritzako sektorean dabilzan herritarrei zuzendua, arrisku handiagoko janari-manipulazailen karneta ateratzeko.

Maiatzaren 12an eta 13an emango da ikastaroa, Osasun Zentro berriko hirugarren solairuko erabilera anitzeko aretoan, eta ordutegia 16:00etatik 19:00etara izango da.

Informazio gehiago jasotzeko edo izena emateko, 943 533 303 telefonora deitu behar dute interesatuek. •

UDALA

Alkatetzara bisitak

Herritarrekin zuzeneko harremana izatea da Jesus Maria Zaballós alkatearen lehentasunetako bat. Izan ere, lasarteiarren kezka edo arazoak gertutik ezagutzeko aukera ematen dio zuzenean.

Hitzordua eskatu duten herritarrekin biltzen ari da dagoeneko. Bisita egun bezala, astelehen eta asteazken arratsaldeak jarri ditu Udalak. Honela, alkatearekin hitzordua eskatzeko 943 376 178 telefono zenbakira deitu behar dute herritarrek.

Era honetara, alkatetzak kontakturako beste bide bat eskaintzen die herritarrei. Era berean, zenbait ekimenen bidez martxan jarritako irekiera eta parte-hartze ildoarekin jarraitzen du Udalak, adibidez, iradokizunen orrialdea edo udalerriko elkarte ezberdinekin izango dituen bilera. •

Obrak eta Hirigintza saila Ganbo kalean

Udalak gogorarazten du, Obrak eta Hirigintza sailaren bulegoak Ganbo Kaleko 1. zenbakian dagoen Udal Euskaltegi zaharrera tokialdatu direla, behin-behinean, hari eta "Udaletxea eraberritzeko eta handitzeko" obrak amaitzen diren arte. •

LANAK

Kalea itxia eta trafiko aldaketak

Zabaleta Berriko urbanizazio lanak direla eta, aste honetatik aurrera Larrekoetxe bidea itxia egongo da, Zabaleta baserria eta Larreko etxearen artean.

Hori dela eta, lanek irauten duten bitartean, Buenos Aires aldapa eta Illarraltzueta bidearen arteko errepidea zirkulazioa bi noranzkoetan erabilioko da.

Era berean, Saneamenduko intertzeporo orokorreko lanen hirugarren fasea hasi da Oriá-Bianchi eremuko pabilioitan.

Hiru hilabetez luzatuko dira lan horiek eta epe horretan trafiko aldaketak egongo dira zonaldean.

Lasarte-Oriako Udaleko alkatetzak barkamena eskatu nahi du lan hauek sortu ditzaketan eragozpenengatik. •

Ezetz asmatu 5 gezur borobilak!

- Munduan 6.500 hizkuntza hitz egiten dira egun, eta estatu bakoitzari bat dagokio.
- Hizkuntzaren eskubideak defendatu behar ditugu, ez hiztunenak.
- Munduko hizkuntzetatik, hiztun gehien duten %10en artean dago euskara.
- Estatu Batuek ez dute hizkuntza ofizialik, eta aireportura eramaten zaituen metroko txartela erosteko makinak 8 hizkuntzatan daude.
- Hizkuntzak arazoa dira enpresentzat. Mundu guztiak hizkuntza bakarra hitz egitea lortu behar dugu.
- Hizkuntza indartsuak eta ahulak daude. Indartsuak hiztun gehien eta agintea dutenak dira.
- Oronaren igogailuetan zein pisutara iritsi garen adierazteko ahotsa euskaraz nahiz gaztelaniaz jar daiteke.
- Ikasteko errazak eta zailak diren hizkuntzak daude.

Erantzun X batekin www.buruntzaldea.org webgunean (edo utzi orri hau Udaletxeko Euskara Zerbitzuan) Epea: maiatzaren 9a.
Saria: Buruntzaldeko herri bakoitzeko asmatzaileen artean denbora-pasen joko bat zozkatuko da.
Lehiaketaren oinarriak: www.buruntzaldea.org
Telefonoz jakinaraziko zaie irabazleei zozketaren emaitza

Musika Eskolan aurrematrikula egiteko epea irekiko da maiatzaren 3an

Gitarra elektriko, pianoa, trikitixa, tronpeta, txistua... ikasi nahi dutenek orain dute aukera Lasarte-Oriako Musika Eskolan izena emateko.

Etxeko txikitik hasi eta helduenera, Lasarte-Oriako Musika Eskolak adin guztiatarako eskaintza aurkezten du, txokoak, hastapena, musika hizkuntza, helduen taldea...

Aurrematrikula

Honela, aurrematrikula egiteko epea maiatzaren 3tik 21era egongo da irekia. Interesatuek, Manuel Lekuona kultur etxean bigarren solairuan, 9:00etatik 13:00etara, eskatu dezakete informazioa eta aurrematrikula orria.

Honetaz gain, Lasarte-Oriako Udalak jakin arazten du, derrigorrezkoa dela aurrematrikula egitea plaza izateko.

Era berean, plazaren eskaera egiterakoan, emandako kontutik 40 eurotako fidantza kobratuko da, plaza eskaera-kontzeptupean, eta dagokion matrikula egiteko unean kopuru hori kenduko zaio kuotatik.

Plaza baten eskabidea egin eta gero, matrikula gautzatzen ez duenak ez duela ordaindutakoa berreskuratzeko eskubiderik izango ere, aditzaera ematen du Udalak.

Plazen esleipena posta bidez, jakinaraziko zaie

eskaera egin dutenei eta, ondoren, behin betiko matrikula epea uztailaren 1etik 16ra izango da.

Emanaldia

Era berean, datorren ostegunean, apirilak 29, 18:00etan, Lasarte Oriako Musika Eskola-ko zenbait ikasle emanaldia eskainiko dute Kultur Etxeko hirugarren solairuko hitzaldi aretoan.

Bertan, esku soinua, pianoa, trikitixa eta panderoaren doinuak entzungo dira.

Musika eskolako ardura-dunek azaldu dutenez, parte hartzaile gehienak aurtien hasi dira musika tresna ikasten eta askorentzat, jende aurreko



Ostegunean, esku soinu, piano, trikitixa eta pandero entzunaldia egingo da.

lehenengo saioa izango da osteguneko.

Neska mutil hauek ikasi dituzten lehenengo kantak izango dira entzungai, beraz. Horregatik, abesti gehienak,

herrikoiak eta ezagunak izango dira.

Ikasle hauetaz gain, zenbait urtez musika tresna ikasten diharduten ikasle batzuek ere hainbat lan eskainiko dituzte. •

Mario Garrido / Patinaje artistikoan Euskadiko txapelduna

‘Amaren eraginez patinaje artistikoan sartu nintzen, eta aitarenaz, judoan’

ITXASO MORENO

Patinaje artistikoan bi urte soilik daraman arren, orain dela gutxi, Mario Garrido lasarteoriatarra Euskadi mailako txapelduna bilakatu da. Kirol honetaz gain, judoan ere aritzen da gaztea. Kontrajarriak dirudite bi kirol hauek, bata musikala eta bestea martziala, baina biak dira arteak. Momentuz kontent dago eta maite dituen bi kirol hauetan jarraitzea du amets Mariok.

Nolatan hasi zinen patinaje artistikoan?

Nire amari asko gustatzen zitzaion kirol honetako txapelketak telebistan ikustea, eta probatzeko aholkatu zidan.

Nik patinaje artistikoa gogoko nuen, baina lotsa ematen zidan eta hasiera batean hockeyra apuntatzea erabaki nuen lagun batekin.

Taldean hartu behar zidanean, entrenamenduan ume bati stickarekin hortzak apurtu zizkioten eta badaezpada, lotsak baztertu eta patinaje artistikoan hasi nintzen.

Amaren eraginez kirol hone-tan hasi eta orain dela gutxi, Euskadiko txapeldun...

Bai, nire ama oso kontent dago. Gainera egia esanez, txapelketa prestatzen ez nuen denbora gehiegi pasa. Aste betez soilik ibili nintzen koreografia prestatzen.

Ba meritua handiagoa...

Beno... lehiaketaren erdian koreografiaren zati bat ahaztu eta asmatu egin behar izan nuen. Baina dena ondo atera zen zorionez.

Zergatik eskaini zenion hain denbora gutxi txapelketa prestatzeari?

Patinaje artistikoaz gain, judoan ere ibiltzen naizelako, eta egia badiot, azken kirol honi denbora gehiago eskaintzen diot patinajeari baino.

Judoa ere? Kontrajarriki kirolak dirudite...

Ez, kirol bateragarriak dira erabat. Judoan hartzen duzun indarra, patinaje saltoak emateko eta behar den malgutasuna izateko lagungarriak dira oso.

Patinatzera bueltatuz, lehenengo aldiz aurkeztu al zara?

Bai. Txuri Urdin Klubean azterketa batzuk pasa behar dituzu maila ezberdinak esku-ratzen joateko, eta aurrean lortu dut txapelketan parte hartzeko behar nuen mailara iristea.

Bi urte daramazu entrena-tzen, baina lehenagotik patinatzeko ohitura zenuen?

Egia badiot, ez. Lehen, bi urtetik behin joaten nintzen Txuri Urdinera. Ez nintzen ohikoetarikoa.

Nola da patinaje artistikoare-kiko lehen kontaktua?

Lehendabiziko gauza oinarri-koena ikastea da, eta horretarako klaseak daude. Zure aurrerapen arabera, azterketa bat gainditu eta mailaz aldatzen zara. Mailen kontua, judoan gerrikoaren kolore aldatetaren antzekoa da.

Zenbat ordu eskaintzen dizkiozu astean?

Astelehen, asteazken, ostiral eta larunbatetan joan beharko nintzake, baina ostiral eta larunbatetan soilik joan ohi naiz. Klase bakoitza ordu betekoa da. Beno, sesio libre-tan ere nahiko finkoa naiz.

Judoari zenbat denbora eskaintzen diozu?

Astelehen, asteazken eta ostiraletan daukat judo. Ostiraletan gainera, patinajeko klasearen ostean. Normalean, ordu beteko saioak izaten dira, asteazkenean izan ezik, bi orduz egoten garela.

Aipatu diguzenez, amaren eraginez sartu zinen patinaje-an, eta judoan?

Aita munduko judo txapelketan bigarren geratu zen eta horrek eraginda, judoan sartu nintzen. Beraz, gurasoak izan dira ni kirol hauek praktikatzearen eragileak.

Patinaje-an txapeldun, eta judoan? Garaipenik bai?

Bai. Azken bi urte hauek izan dira emakorenak.

Euskadiko txapelketan bigarren geratu naiz. Sanbo eta borrokan ere, Espainiako txapelketan lau aldiz izan naiz hirugarren. Eta aurrean, Europako kopa internazionalen bosgarren. Emaitza onak, beraz.

Judo eta patinaje artistikoaz aparte beste kirolik egiten duzu edo egin duzu?

Adibidez, atletismoan ibili nintzen, baina hobya bezala nuen.

Eta orain judoan, bertan sanbo eta borroka ere egiten ditugula, eta patinaje artistikoan nabil.

Nik uste dut kirol nahiko direla. Are eta gehiago, asteko ia egun guztietan entrenatzen dudala ikusirik.

Astelehenetik larunbatera nabil jo eta ke, eta gero gainera aste-buruetan judoko txapelketak izan ohi ditut, eta hauek denboraldian zehar ugari dira.

Oso okupatua nago beraz, beste kirol batean murgiltzeko.

Patinaje artistiko txapelketak ere izaten dituzu?

Judoarekin alderatuz gutxiago daude. Hala ere, gero eta maila altuagoa lortu heinean txapelketa gehiagotara joateko aukera duzu, eta hor gauzak zailduko dira.

Judo ala patinajea?

Biak asko gustatzen zaizkit. Patinajea uzteko zorian egon nintzen, baina azkenean...

Denbora egon nintzen patinatu gabe, baina izotzaren gainean ibiltzeko grina handia zen, faltan botatzen nuen eta azkenean, berriro hasi nintzen.

Biak ditut gogoko, eta bietan jarraitzeko gogoak ditut, nahiz eta askotan zaila diren elkar uztartzea.

Entrenatzaileak bronka botatzen didate ez naizelako entrenatzera joaten, beste kirolean aritzen naizelako. Baina momentuz bronkak jasaten jarraituko dut.

Eta kirol bakarra egiten jarraitu beharko bazenu?

Askotan esan didate batekin geratu behar naizela, eta judoa erabakiko nuke.

Nire ustez, erraztasun handiagoa daukat, eta horregatik egingo nuke aukeraketa hori. Patinaje artistikoarekin oraindik denbora gutxi daramat.

Kirol bateko lesioak, besterako kalte?

Judoan normalean ez naiz lesionatzen. Eta patinaje-an behin txorkatila bihurritu nuen. Bendatu eta justu, Espainiako txapelketa nuen, bertara joan eta ondo joan zitzaidan. Bi kirolak arazorik gabe uztartu daitezke.

Zein kirolek betetzen zaitu gehien?

Biek berdin. Kirol bakoitzak berea ematen dit. •



Patinaje artistikoan Euskadiko txapelduna da Mario Garrido eta judoan, Euskadi, Espainia eta Europa mailan ere hainbat trofeo eskuratu ditu.

Gaupasa egin zuten San Pedro Elizan larunbatean, presoen aldeko itxialdian

Denetarik egiteko denbora izan zen antolatutako 12 orduko itxialdian: hitzaldiak, bideo emanaldia...

Larunbat iluntzean, herri-ugarari bildu zen Lasarte-Oriako presoen aldeko itxialdian parte hartzeko. Arratsaldeko 20:00etan elkartu ziren San Pedro parrokiako kanpoaldean, afari merienda eta elkarretaratzea uztartuz. 21:30ak aldera, afari-merienda luzatu baitzen, San Pedro Elizan sartu eta atzo, igandeko 08:00ak arte bertan egon ziren presoek elkartzasuna adierazten. Gau berezi honen bitartez antolatzaileek preso-egoera salatu eta gaia astindu nahi izan dute berriro.

Egitarau sendo eta zabala izan zuten gaupasan parte hartu zutenek. Itxialdian zehar zenbait bideo ikusi eta Iñaki

Egaña, Joxean Agirrek, Iñaki Gil de San Vicente, Iñaki Soto, Gotzon Garmendia eta Antxon Gomezen eskutik hainbat hitzaldi entzuteko aukera egon zen. Hizlari hauetaz gain, bertaratutako guztiak ere euren sentazio eta ekarpenak plazaratu ahal izan zituzten.

Presentzia paperaren bidez
Herriko presoak ere ahotsa izan zuten Itxialdian. Presentzia fisikoa ez noski, baina bai bakoitzak bidalitako eskutitz baten bidez. Euren ere beraien ekarpena egiteko aukera izan zuten San Pedro elizan.

Komunikatua
Larunbatetik igandera bitar-

tean entzungai egon ziren ahots guztiak komunikatu batean biltzea zuten helburu antolatzaileek, eta bertan azaldutako guztiaren berri ostiraleko TXINTXARRIN emango zaizue zabal.

Presoen egoera

13 preso lasarteoriatar daude momentuan kartzelan, eta horietatik 5 borrokan daude.

Txandakako gose greben bitartez, zigorra beteta duten presoak eta gaixo daudenak kaleratzea, eta halaber presoak bizi ziren herri ondoko kartzeletara hurbiltzea eta senideen aurkako kontrol, miaketa eta beste tratu desagokiak bertan behera uzteko eskatu eta lortu nahi dute. •



Iñaki Gil de San Vicente, Iñaki Egaña eta Iñaki Soto itxialdiko hizlarietako batzuk



20:00etan hasi zen preso-erantzuleen aldeko itxialdia udalaren aurrean elkarretaratzea eginez.



Presoen aldeko itxialdi-gaupasa egin baino lehen, sabela bete behar ondo.



- Gremioen koordinazioa
- Ordenadore bidezko diseinua
- Konpromisorik gabeko aurrekontuak
- Horma- armairuak
- Marka guztietako etxetresna elektrikoak

*** VEGASA ESKAINTZA!**
%15EKO BEHERAPENA ALTZARIETAN

ERAKUSLEIHOAREN ALDAKETAGATIK
%40AREN BEHERAPENA

* (ezin da beste eskaintzekin bateratu)

Pintore Kalea 5 • Tel./Faxa: 943 361471
Lasarte-Oria
www.sugate.net






2010-04-26 • 857. zk. • txintxarri 05

Lasarte-Oriako maketa lehiaketako hirugarren edizioa martxan dago

Nazioarteko, Euskal Herriko, zein herriko taldeek partu hartu dezakete

Madrilgo Son of the Rock, Boogie Van, herriko Gaueko Itzalak eta Plastic taldeak izan dira aurreko urteetan Lasarte-Oriako maketa lehiaketan saria lortu eta San Pedro jaietako amaiera kontzertua eskaini dutenak. Aurten, III. edizioa martxan jarri du Lasarte-Oriako Udalak eta aurreko urteko arrakasta izatea espero du.

83 musika talde aurkeztu ziren iaz II. Maketa Lehiaketaren eta arrakasta hori ikusita, Lasarte-Oriako Udaleko Gazteria eta Festetako sailak lehiaketaren edizio berria antolatzea erabaki du.

Duela hiru urte jarri zuen martxan ekimen hau Gazteria eta Festak sailak, asmoa, udalherriko musika talde ezberdinak sustatu, hauei bultzada eman eta etorkizunean lanean jarraitzea.

Urtero partehartzaileru kopurua handitzen joan da eta, bigarren edizioan, Euskal Herriko, estatuko, zein atzerriko taldeek parte hartu zuten.

Lehiaketako arauak

Edozein estilotako taldeek eta bakarlariek parte hartu ahal dute, musika klasikoan ezin ez, eta beti ere, modu komertzialean ekoiztutako materiala ez badute.

Lehiaketan parte hartu

nahi duten taldeek arau hauek kontuan hartu behar dituzte.

Taldeak eta bakarlariek nazionalak edo internazionalak izan daitezke. Aurreko edizioetako irabazleek ezingo dute parte hartu.

Lehiaketan izena emateko partaide bakoitzak hiru kanta aurkeztu beharko ditu eta horietako bik gutxienez originalak izan beharko dute.

Abesti bakoitzak hiru minutuko iraupena izan beharko du, gutxi gorabehera, eta MP3 formatuan egon beharko dute.

Kantuekin batera, talde edo bakarlariek bakoitzak izena emateko fitxa aurkeztu beharko du behar bezala beteta eta, horrez gain, taldearen argazki bat.

Hiru abestiek, izena emateko fitxak eta argazkiak ezinongo dute 15MB baino gehiago eduki.

Eskatutako gutzia, make-tak@lasarte-oria.org helbidera bidali behar dira maiatzaren



Plastic taldeak irabazi zuen iaz Lasarte-Oria saria eta San Pedro jaietako amaiera kontzertuan egon zen Isla Plazan.

14a baino lehen. Izan ere, epe horretatik kanpo ez dira onartuko.

Epaimahaia

Lehiaketako epaimahaia Gazteria eta Festetako batzordeak izendatuko du eta bere osuera lehiaketaren erabakiariekin batera emango da ezagutzera.

Gazteria sailak aditzera eman duenez, azken balora-

ziorako ez da kontuan hartuko grabaketaren kalitate teknikoa, beti ere, musika eta letra ondo entzuten direnean.

Sariak

Lasarte-Oriako maketa lehiaketako talde edo bakarlariek irabazleak 1.000 euroko saria jasoko du metalikoan.

Era berean, epaimahaia Lasarte-Oria saria emango du,

700 eurokoa izango dena.

Sari hori irabazteko aukera izateko, taldeko %50k Lasarte-Orian errolatuta egon beharko du.

Gazteria sailak jakinarazten du, maketa berdinak ezinongo dituela bi sariak jaso.

Sari metalikoaz gain, irabazleek kontzertu bat eskainiko dute hurrengo San Pedro jaietan. •



Ikusleak oso gustura egon ziren ordu eta erdi inguru iraun zuen kontzertua entzuten.

Emanaldi atsegina eta lasaia

Urko Menaia kontzertua eskaini zuen ostiral iluntzean Jalgi kafe-antzikian.

Beste bi lagunaz lagunduta etorri zen Urko Menaia kontzertua eskaintzera. Berak kantatzeaz gain gitarra ere jo zuen, pianoan berriz, taldeko

neska bakarrak, Idoia Oteiza musikaria zegoen eta txeloa jotzen Luis Fernandez.

Hurbildutakoak ederki gozatu zuten hirukote honek eskaintako abestiekin. Pop eta folk estilotako abestiak jo zituzten.

Entzuleen gustuko kontzertua

Ama Brigitarren komentuko kapera, berriro ere, ahots musikaz bete zen ostiralean.

Zumaiaiko San Pedro Abesbatzak kontzertu ederra eskaini zuen, Danok Kideek antolatutako V. Musika Topaketen barruan.

Amaia Aldalurrek zuzendutako ahots taldeak euskal egileen eta Durulleren abesti sakroekin eman zion hasiera kontzertuari.

Ostean, euskal abesti, zein nazioarteko abesti herrikoiak entzun ahal ziren Brigitarren kaperan. •



Zumaiaiko San Pedro abesbatzak gustura utzi zituen Brigitarren kaperan bildu ziren herriarrak.

Egunero

Erakusketa

SU LAZTANAK, Garikoitz Lasaren egurrean egindako pirograbatutak ikusgai Jalgi kafe-antzekian.



Erakusketa

PINTOREAREN ESTUDIOKO IKASLEEN erakusketa. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etatik 21:00etara.

Osteguna, 29

Kontzertua

MUSIKA ESZOLAKO ikasleek esku soinu, piano, trikitixa eta pandero entzunaldia eskainiko dute. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan.



Joseba Sarrionandiaren "Hnuy illa nyha majah yahoo"
poesia liburuan oinarritako dantza ikuskizuna



HNUY ILLA dantza ikuskizuna Kukai dantza taldea eta Tanttaka Teatro konpainiaren eskutik. Lan honek aurreko bi obreakin (1937 Gogoaren bideziderrotatik eta Otehitzari Biraka) ekindako biderei jarraipena ematen dio. Bertso iradokitzaileak eta naratiboak; kantatzeko, errezitatzeko edota intuizteko modukoak.

APIRILAREN 30EAN, OSTIRALA
KULTURETXEAN 20:00ETAN
SARRERA, 6 EURO
EUSKARAZ

Zinea

CELDA 211 filma Okendo Zinema Taldearen eskutik. Sarrera 4,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 21:30ean. GAZTELANIAZ



Kontzertua

CESK FREIXAS bakarleri kataluniarrak eta Makulu Ken talde lasarteoriatarrek kontzertua eskainiko dute Xirimiri elkartearekin. Xirimiri Elkartearekin, 22:00etan.

Osteguna, 6

Hitzaldia

GATAZKA BAT SORTU DA ETA HELDUOK ZER EGITEN DUGU? hitzaldia eskainiko du Josune Martiarenak Udalaren Sanitateko Departamentuak atolatuta. Manuel Lekuona kulturetxean, 18:00etan, GAZTELANIAZ

Esazu irratiko programazioa



Ostiralero programa!

FMko 105,5 ean izango gaituzue ostiralero 9:45etik 11:45era

Gurekin ondo pasatuko duzuelakoan, ostiralera arte!

Liburutegiko ordutegia



Astelehenetik ostiralera

10:00etatik 13:00era eta 17:00etatik 21:00era
Larunbatetan, 09:30etik 13:00etara

Manuel Lekuona kulturetxea • Geltoki kalea 18 • Tel.: 943 376181

Oharrak

Langilearen eguneko manifestazioa

Lasarte-Oriako CNT-kideek deialdi honen bidez, Lasarte-Oriako langileria animatu nahi dugu Maiatzaren leheneko manifestazioan parte hartzea. Manifestazioa Donostiako Bulebarretik aterako da 12:00etan eta ondoren mitina egingo da.

Era berean, 14:00etan, bazkara antolatu dugu. Parte hartu nahi baduzue deitu 943 472 687 zenbakira, astearte, asteazken edo ostegunetan 19:00etatik 21:00etara.

Zabaletako festak

Zabaletako Auzo-elkarteak ekainaren lehenengo astean, ekainaren 2tik 6ra antolatuko ditu Zabaletako festak. Hauek antolatzeko asteartero, 19:30ean, Antonio Blas plazan bilera egingo dela jakinarazten du auzo elkarteak.

60ko kinto afaria

Dana Ona jatetxean ospatuko da maiatzaren 29an 60ko kin-

toen afaria. Izena emateko azken eguna maiatzaren 5ean izango da. Pertsona bakoitzak 50 euro ordaindu beharko ditu eta diru hori Kutxako 21010048200012568275 kontuan sartu behar da. Informazio gehiagorako interesatuek 943 370980 telefonora deitu (Maria Luisa).

Udako Txokoetan begirale

Haurrak gustukoak dituzten gaztetxoek Udako Txokoetan begirale izateko aukera eskaintzen die Ttakun Kultur elkarteak. Apirila eta maiatza bitartean zabalik izango da begirale moduan aritzeko izena emateko epea. Begirale izateko baldintza bakarrak 18 urte baino gehiago izatea eta euskara maila txukun bat edukitzea da. Begiraleak aukeratzeko proban, begirale titulua, esperientzia eta hezkuntzarekin zerikusia duten ikasketak edukitzea hartuko dira kontuan eta puntuazio bidez aukeratu dira.

Izen-ematea Ttakunen

egin behar da (Geltoki kalea 4) eta informazio gehiagorako deitu 943 371 448 telefonora.

Marrazketa eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen Elkarteak antolatzen duen marrazketa eta margo eskolan plazak daude. Izena emateko jo kulturetxeko 2. solairura 18:00etatik 19:00etara, astelehenetan, ostiraletan eta larunbatetan 09:30etik 11:30era.

Sorosle ikastaroa Usurbilen

Maiatzaren 3tik 21era sorosle ikastaroa antolatu du DYA erakundeak Usurbilen. Arratsaldeko 19:00etatik 21:00etara eta astelehenetik ostiralera izango da ikastaroa parrokiko lokalean (Kale Nagusia 25). Informazioa eta aurreinskripzioa 943 464622 telefonon.

Udaltzainek jasotakoak

Udaltzainen bulegoak herriko bizilagunei jakinarazten die ondoko gauza hauek dauzkatela jasota, urrezko eskumutu-

rrekoa, diru-zorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilarioa, Festina markako eskumuturreko erlojua, Suzuki markako motozikleta kaskoa, zilarrezko belarritakoak, betaurreko graduatuak eta betaurreko graduatuak bere estutxean.

Hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hila-beteko epean jaso behar dituzte. Horrela izan ezean, legeak ezarritako norakoa emango diete.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei arren eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Errugby eskola

Beltzak-Ostadar Errugby eskola martxan jarri den otsailean. Geroztik, igandero, goizeko 09:00etatik 10:30 bitartean entrenatzen dute Michelinek. Errugby eskolako antolatzaileek Lasarte-Oriako ikasle guztiak gonbidatzen dituzte honetan parte hartzera.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri Txintxarri aldizkariara. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).



Egun zoragarriari amaiera paregabea emateko Txorro eta Morrorekin denok dantzan!



Puzgarriak, jolasak, egun zoragarria... zer gehiago eskatu daiteke?



Jolasteaz aparte, aurpegia margotu eta marrazteko aukera izan zuten

Ume ugari bildu zen Amaraun jaialdian

TXINTXARRI

Abentura pila bat eta giro ezinhobea izan genuen Arunbatean Amaraun jaialdiaren ospakizunetan. Sei orduz, mila dibertsio! Goizeko 11:00etatik arratsaldeko 19:00ak arte ekintza ugarietaz disfrutatzeko aukera egon zen frontoi berrian.

Puzgarriak, tailerrak, Amaraun ludotekako txokoa, Ezti, Lur eta Markoren ekitaldia, eta arratsaldeko 18:00etan Txorro eta Morroren dantzaldiaz gozatzeko aukera izan zuten Lasarte-Oriako gaztehoenak.

Egun ikaragarria pasatzeko, eta ez aspertzeko aukera ederra izan zuten.

Berrindartzeko garaia

Leku batetik bestera, gelditu gabe, horrela ibili ziren Amaraun jaialdian parte hartutako gaztetxoak. Goiz guztia korrika, saltoka eta disfrutatzen noski!

Baina noski, azkenean, energiak ere agortu egiten dira. Eta hori konpontzeko formula bazeukaten jaialdiko antolatzaileek; ume guztiak berrindartzeko Makarroi-jana gozo bat prestatu zuten.

Tomate saltsa nagusitu zen umetxoan aurpegietan, baina baita irribarrea ere, ondo pasatzen ari ziren seinale.

2002 eta 2004 urteko gaztetxoek zuten bazkariatzeko aukera, eta baita gozatu ere. Hau frogatzeko euren

aurpegiak ikustea baino ez zegoen.


Etxera bueltatzeko ordua

Ondo pasatzen ari ziren umeak, denok dugu gustuko hori, baina Amaraun jaialdiak ere amaiera orduan jarria zekukan. Txorro eta Morroren dantzaldiaren ondoren, aurpegi alaiak pittin bat goibeldu ziren.

Aurtengo jaialdia amaitzeaz zegoen. Baina gogoratu ezazue, uda etortzeaz dagoela, txokoak eta kanpaldiak hurbil dituzuela. Amaraun jaialdia datorrenaren zizkamizka besterik ez da, oraindik plater goxoenak dituzue zuen zai: lasai, makarroi-jana eta dibertimentu ziurtaturik daukazue. •



Urdaiazpikoa, gazta, tomatea... makarroiak bakoitzak bere gustura egin zituen.



Hamaika abentura ...

udako txokokoak

2010

Primeran pasatzeko uda!

Ttakun • Geltoki kalea 4 • 943 371448 www.ttakun.com